Gipuzkoako Aldizkari Ofiziala — Boletín Oficial de Gipuzkoa

2022ko martxoaren 8a, asteartea — 45 — Martes, a 8 de marzo de 2022

GIPUZKOAKO LURRALDE HISTORIKOKO ADMINISTRAZIOA — 2 — ADMINISTRACIÓN DEL TERRITORIO HISTÓRICO DE GIPUZKOA

## GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA

## INGURUMENEKO ETA OBRA HIDRAULIKOETAKO DEPARTAMENTUA

*Ingurumen Txosten Estrategikoa, Usurbilgo Plangintzako Arau Subsidiarioen Testu Bateginaren hirugarren aldaketa puntualarena, A-78 (TE) «Zapategi» Eremuari dagokionez.*

*1. Aurrekariak.*

2021eko abenduaren 2an jasotako idazkiaren bidez, Usurbilgo Udalak eskatu dio Gipuzkoako Foru Aldundiko Ingurumen Zuzendaritza Nagusiari egin dezala ingurumen txosten estrategikoa, Arau Subsidiarioen Testu Bateginaren hirugarren aldaketa puntualarena, A-78 Zapategi eremuari dagokionez. Udalak eskaerarekin batera igorri ditu, alde batetik, hasierako onespeneko Hirigintza-dokumentua, eta bestetik, haren ingurumen dokumentu estrategikoa, biak 2021eko azarokoak.

Aplikaturik zer dioen, 6.2.a) artikuluan, 21/2013 Legeak, abenduaren 9koak, Ingurumen Ebaluazioari buruzkoak, ingurumen ebaluazio estrategiko sinplifikatuaren xede izan behar du Arau Subsidiarioen Testu Bateginaren hirugarren aldaketa puntualak, A-78 Zapategi eremuari dagokionez, zeren eta txikiagotzat jo baita, aipatutako legeak 6.1. artikuluan xedatutako aldaketak baino. Prozedura honetan zehaztuko da, aldez aurretik kontsulta eginda aldaketak eragiten dien administrazio, pertsona eta erakundeei, ea eragin nabarmenak sor ditzakeen ingurumenaren gainean, eta horregatik, ingurumen ebaluazio estrategiko arrunta behar duen, edo ez dituen sortzen, ingurumen txosten estrategiko honek ezartzen dituen terminoetan.

*2. Helburuak eta proposatutako antolamendua, Arau Subsidiarioen Testu Bateginaren hirugarren aldaketa puntualean, A-78 Zapategi eremuari dagokionez.*

Elkar Lanean Fundazioak eta Gureak Lanean SAk beren jarduerak garatu nahi zituzten, Usurbilgo Arau Subsidiarioetako 78 Zapategi eremuko eraikuntzarik gabeko lurretan. Hain zuzen, ezarpen hori ahalbidetzeko izapidetu zen Usurbilgo udalerriko Plangintzako Arau Subsidiarioen Testu Bateginaren Aldaketa, A78 (TE) Zapategi izeneko Hirigintza-eremuari zegokionez. Aldaketa horrek hasierako eta behin-behineko onespena jaso zuen, baina, Foru Aldundira behin betiko onar zezaten bidali aurretik, Elkar Lanean Fundazioak jakinarazi zuen uko egiten ziola proiektuari, COVIDaren pandemiak eragindako egoera berriagatik. Horren ondorioz, birplanteatu behar izan da A78 (TE) eremuaren antolamendua eraikuntzarik gabeko eremuan, eta hasierako onespen berri bat egin behar izan da, baita ingurumen dokumentu estrategiko berri bat ere.

114.757,86 m²-ko eremu horrek, hiri-lurzoru industrial gisa sailkatuak, bi eremu berri izango ditu:

— 78 (TE) Michelin eremua, Michelin pneumatiko fabrikaren egungo instalazioek okupatua, 70.096,39 m²-ko azalera duena. Hiri-lurzoru finkatu gisa sailkatuko da, industria-erabilerarakoa.

— 110 (TE) Zapategi eremua, eraikuntzatik askatutako lurzoruei dagokiena, non planteatzen den haien Hirigintza-eraldaketa,

## DIPUTACIÓN FORAL DE GIPUZKOA

## DEPARTAMENTO DE MEDIO AMBIENTE Y OBRAS HIDRÁULICAS

*Informe Ambiental Estratégico de la tercera modificación puntual del Texto Refundido de las Normas Subsidiarias de Planeamiento de Usurbil Referida al Ámbito A-78 (TE) «Zapategi».*

*1. Antecedentes.*

Mediante escrito recibido el 2 de diciembre de 2021, el Ayuntamiento de Usurbil ha solicitado a la Dirección General de Medio Ambiente de la Diputación Foral de Gipuzkoa la emisión del informe ambiental estratégico de la tercera modificación Puntual del Texto Refundido de las NNSS del ámbito A-78 Zapategi. Junto con la solicitud, el ayuntamiento ha remitido el documento urbanístico de aprobación inicial y su documento ambiental estratégico, ambos de noviembre de 2021.

En aplicación de lo dispuesto en el artículo 6.2.a) de la Ley 21/2013, de 9 de diciembre, de evaluación ambiental la tercera modificación puntual del Texto Refundido de las NNSS del ámbito A-78 Zapategi debe ser objeto de una evaluación ambiental estratégica simplificada al haberse considerado como menor en relación con las modificaciones dispuestas en el art. 6.1 de la mencionada Ley. Durante este procedimiento se determinará, previa consulta a las administraciones, personas e instituciones afectadas, si la modificación puede tener efectos significativos sobre el medio ambiente y debe, por tanto, someterse al procedimiento de evaluación ambiental estratégica ordinaria, o no los tiene en los términos que establezca este informe ambiental estratégico.

*2. Objetivos y ordenación propuesta en la Tercera modificación puntual del Texto Refundido de las NNSS del área A-78 Zapategi.*

Elkar Lanean Fundazioa y Gureak Lanean, S.A. estaban interesados en desarrollar sus actividades en los terrenos libres de edificación del ámbito 78 Zapategi de las NNSS de Usurbil. Para posibilitar esta implantación se procedió a tramitar la modificación de Texto Refundido de las Normas Subsidiarias de planeamiento del municipio de Usurbil en el ámbito urbanístico denominado «A78 (TE) Zapategi». Esta modificación recibió la aprobación inicial y provisional, pero, antes de su envío a la Diputación Foral para su aprobación definitiva, Elkar Lanean Fundazioa comunicó su renuncia al proyecto debido a las nuevas condiciones producidas por la pandemia del COVID. En consecuencia, ha sido necesario replantear la ordenación del ámbito A78(TE) en la zona sin edificación y realizar una nueva aprobación inicial y un nuevo documento ambiental estratégico.

Esta área de 114.757,86 m² y clasificada como suelo urbano industrial constarán de dos nuevas áreas:

— Área 78(TE) Michelin ocupada por las actuales instalaciones de la fábrica de neumáticos «Michelin» cuya superficie asciende a 70.096,39 m². Se clasificará como suelo urbano consolidado destinado a uso industrial.

— Área 110(TE) Zapategi: correspondiente a los suelos liberados de edificación, donde se plantea su transformación urbanís-

EK\CV GAO-I-2022-01296

han instalatzeko Grupo Balfer Norte SL eta Gureak Lanean SA enpresen jarduerak. Azalera 44.661,47 m²-koa du, eta horiei gehitu behar zaizkie Oria ibaian zehar erositako 5.502,87 m²-ko lursailak, gehienak erriberako babeseko berdeguneetarako erabiliko direnak. Hiri-lurzoru finkatugabe gisa sailkatuko da, urbanizazio nahikorik ez egoteagatik, eta jarduera ekonomikoetarako eraikigarritasuna handitzeagatik.

Alderdien artean sinatutako Hirigintza-hitzarmenak antolamendu irizpide orokorrak ezartzen ditu, eta, horien artean, hauek dira nagusiak:

— Oinezkoentzako eta bizikletarientzako lotura on bat lortzea, biziberritze-berdegune bat sortuz eremua inguratzen duen errekastoaren ondoan, modu irisgarri batean lotuz Urbiletik gertuen dagoen goialdea eremuaren behealdearekin eta Oria ibaiarekin. Oinezkoentzako eta bizikletarientzako lotura nagusitik bereizita lotu beharko da eremuko motordunen zirkulazioa lehendik dauden bide azpiegiturekin.

— Oreka bat lortzea bi alderdi hauen artean: alde batetik, lurzati pribatuen lurzorua, okupazio modua, eta horietarako sarbideak, eta, bestetik, espazio publikorako lurzorua.

— Kalitatezko espazio publikoa sortzea, egoteko espazio gisa, eta lotura-espazio gisa Urbil inguruaren, eta Lasarte-Oriako erdigunearen eta Txikierdiren artean.

Bestalde, aldaketa horrek ingurumen helburu hauei erantzuten die:

— Eremu degradatu bat berroneratzea, zehazki eremu antropizatu batzuk –non Michelin enpresak Usurbilen bere industria-jarduera garatu duen– gaur egun erabiltzen ez direnak.

— Inpaktu txikiko urbanizazio bat garatzea, lurzoruaren zigilatzea eta iragazgaiztea ahalik eta gehiena murriztuz.

— Hirigintza-eredu jasangarriak aplikatzea, oinarritzat izango dituztenak eraikuntza bioklimatikoko jarraibideak, energia berriztagarrien erabilera, eta energia-efizientziako irizpideak. Horrela, hurbildu nahi dira hiri-garapen berriak energia-autosufizientziara.

— Eraikinen estalkiak eta lurpea aprobetxatzea ura hartzeko, zenbait erabileratarako erabiltzeari begira.

— Hirigintza-plangintzek eta -proiektuek kontuan hartu beharko dituzte hondakinak kudeatzeko mekanismoak eta azpiegiturak, oinarrituta murriztean, berrerabiltzean eta birziklatzean.

— Eremuaren eta inguruko eremuen arteko ibilgailuentzako edo oinezkoentzako konexioak optimizatzea.

Jarduketa hori jasota dago Donostiako Eremu Funtzionalaren (Donostialdea-Bidasoa Beherea) Lurralde Plan Partzialean. Proposatutako Arauen aldaketaren azken helburua, hau da, Michelin lantegiko lurzoru zaharkituak eraldatuz hirugarren sektoreko jarduera berrien industrialde bat sustatzea, lehentasunezko jarduketa publikotzat jotzen du LPPk Oria Beheko hiri-elkarketarako, zeina osatzen baitute Usurbilek, Lasarte-Oriak eta Donostiako Zubieta eta Errekalde auzoek. Era berean, LPPk oinezkoen eta bizikletarien sarerako proposamen berri bat jasotzen du, A-78 Zapategi eremuaren parean doana, haren eta Oria ibaiaren artean.

Ingurumen dokumentu urbanistikoan eta ingurumen dokumentu estrategikoan, 5 alternatibaren analisia egiten da garapen horretarako, 0 alternatibaz edo esku ez hartzekoaz gain. Lehenengo lau alternatibak aztertu ziren 2019an hasieraz onetsitako dokumentuan, eta, une hartan, laugarrena hautatu zen. Hala ere, orain, antolamenduari buruz egin den birplanteamenduarekin, bosgarren bat diseinatu da, azkenean aurrera eramango dena.

0 alternatiban, hau da, indarrean dauden Arau Subsidiarioetan, aurreikusten da Michelin enpresaren instalazioak handitzea, eta planteatzen da Txikierdiko sarbidea hobetzea. Hala eta guztiz

tica para la instalación de las actividades de Grupo Balfer Norte S.L. y Gureak Lanean, S.A. Su superficie asciende a 44.661,47 m², a los que hay que sumar los 5.502,87 m² de terreno adquiridos a lo largo del río Oria y que en su mayoría se destinará a zonas verdes de protección de ribera. Se clasificará como suelo urbano no consolidado por insuficiencia de urbanización e incremento de la edificabilidad destinado a actividades económicas.

El convenio urbanístico suscrito entre las partes establece criterios generales de ordenación, entre los cuales los principales son los siguientes:

— Lograr una buena conexión peatonal y ciclista a través de una zona verde de regeneración creada junto a la regata que rodea el ámbito, uniendo de forma accesible la zona alta más cercana a Urbil con la parte baja del área y el río Oria. Se deberá conectar el tráfico motorizado del ámbito con las infraestructuras viarias existentes de una forma separada a la conexión peatonal y ciclable principal.

— Conseguir un equilibro entre, por un lado, el suelo y la forma de ocupación de las parcelas privadas y el acceso a las mismas, y, por otro, el suelo destinado a espacio público.

— Creación de espacio público de calidad como espacio de estancia y de conexión entre la zona de Urbil con el centro urbano de Lasarte-Oria y Txikierdi.

Por otra parte, esta modificación atiende a los siguientes objetivos ambientales:

— Regeneración de un ámbito degradado, en concreto, las superficies antropizadas donde ha venido desarrollando Michelin su actividad industrial en Usurbil y que actualmente están en desuso.

— Desarrollo de una urbanización de bajo impacto, reduciendo el máximo el sellado y la impermeabilización del suelo.

— Aplicación de patrones urbanísticos sostenibles que se apoyen en pautas de construcción bioclimáticas, utilización de energías renovables y aplicación de criterios de eficiencia energética. Se pretende así, acercar los nuevos desarrollos urbanos a la autosuficiencia energética.

— Aprovechamiento de cubiertas y subsuelo de los edificios para la captación del agua, de cara a su utilización en algunos usos.

— Las planificaciones y los proyectos urbanísticos deberán considerar los mecanismos e infraestructuras de gestión de residuos basada en la reducción, la reutilización y el reciclaje.

— Optimizar las conexiones rodadas y/o peatonales del ámbito con las áreas colindantes.

Esta actuación está contemplada en el Plan Territorial Parcial del Área Funcional de Donostia- San Sebastián (Donostialdea-Bajo Bidasoa). El objeto final de la modificación de Normas propuesta, es decir la promoción de una industrialdea de nuevas actividades terciarias mediante transformación de los suelos obsoletos de la planta de Michelin, es considerada por el PTP como actuación pública prioritaria para la agrupación urbana del Bajo Oria formada por Usurbil, Lasarte-Oria y barrios de Zubieta y Rekalde de San Sebastián. Asimismo, el PTP incluye una nueva propuesta de red peatonal y ciclista que discurre frente al área A-78 Zapategi, entre ésta y el río Oria.

En el documento ambiental urbanístico y en el documento ambiental estratégico se hace un análisis de 5 alternativas para este desarrollo además de la Alternativa 0 o de no intervención. Las cuatro primeras alternativas se analizaron en el documento que se aprobó inicialmente en 2019, escogiéndose en ese momento la cuarta de ellas. Sin embargo, ahora con el nuevo replanteamiento que se ha hecho de la ordenación, se ha diseñado una quinta que es la que finalmente se llevará adelante.

En la Alternativa 0, es decir en las Normas Subsidiarias vigentes, se prevé la ampliación de las instalaciones de Michelin y se plantea la mejora del acceso desde Txikierdi. Sin embargo,

EK\CV GAO-I-2022-01296

ere, arau horiek onartu zirenetik igarotako denboran, enpresa horrek murriztu egin ditu eremu horretako lurzoru premiak; beraz, gaur egun erabilerarik ez duten lurzoruak ez ditu okupatuko etorkizunean. Alde batetik, Michelin España Portugal SAk enpresa-estrategian izandako aldaketa horrek; bestetik, Balfer Norte SLk eta Gureak Lanean SAk lurzoru horiengatik erakutsitako interesak, bai eta lurzoru horiek okupatzeak berekin dakarren aukerak –ekonomiaren ikuspuntutik (udalerrian jarduera ekonomikoa handitzea, eta zuzeneko 700 lanpostu sortzea), gizarte ikuspuntutik (gizarte izaera nabarmeneko jarduera berriak ezartzea, eta espazio degradatu bati balioa ematea) eta ingurumen ikuspuntutik (lurzoru artifizializatuak berrerabiltzea, eta Oria ibaitik hurbil dauden lurzoru libreak herritarrentzako berdegune gisa berreskuratzea)–, eta azkenik, indarrean dagoen plangintza orokorra berrikusteko prozesu naturalari itxaron ezin dion denbora batean proiektuari irtenbide bat eman beharrak, bada, alderdi horiek guztiek justifikatzen dute aldaketa horren komenigarritasuna eta egokitasuna; beraz, bermatzen dute ezestea 0 alternatiba, indarrean dagoen plangintzari eustekoa.

Bestalde, Arau Subsidiarioen aldaketa honen izaera delaeta, baztertzen da kokapen alternatibak hautatzea, analisia zentratuta soilik eremuaren barruko antolamendu alternatiba posibleetan.

Planteatutako 5 antolamendu alternatibei dagokienez, honela laburbil daitezke:

— Lehenengoa, non soilik erantzuten zitzaien Balfer Norte SLk eta Gureak Lanean SAk adierazitako beharrei. Baztertu zen ez zituelako betetzen Hirigintza-hitzarmenean eremu horretarako ezarritako ingurumen helburuak, ez eta HAPOren aurrerapeneko ingurumen zehaztapenak ere. Gutxien baloratutako aukera da ingurumenari dagokionez.

— Bigarrena, helburu zuena HAPOren aurrerapenean ezarritako irizpideak betetzea. Bertan ezartzen zen kalitatezko espazio publiko bat diseinatu beharra, oinezkoentzako eta ikusizko ardatz bat sortuz, lotuko zituena Urbil merkataritza-gunea eta Oria ibaia, eta haien arteko kota-aldea gaindituko zuena, eta, gainera, ahalbidetuko zuena plaza publiko bat sortzea. Ingurumen alderdi batzuk hobetzen ditu, hala nola espazio publikoaren tratamendua –giza habitataren gaineko eragin positiboa–, birnaturalizatu beharreko espazioen azalera –landarediaren eta faunarentzako habitataren gaineko eragin positiboa–, eta eremuko ur artifizialaren ibilgua birnaturalizatzeko aukera –sare hidrologikoaren gaineko eragin positiboa–. Baztertu zen, zeren eta eraikin pribatuen konfigurazioak barne ekoizpenaren fluxua hainbeste zailtzeak bideraezin bihurtzen baitzuen.

— Hirugarrena, non aldatzen zen berdegunearen egoera; hala, ibaiaren ibilguari jarraituz, berdegune zabal bat sortzen zen eremuaren mendebaldean. Abiapuntuko helburuak betetzen ditu, eta bigarren alternatiban jada aipatutako ingurumen alderdiak hobetzen ditu; are gehiago, handitu egiten du bernaturalizatu beharreko espazioen azalera, haren aldean. Hala ere, bigarren alternatibarako gertatzen den bezala, antolamenduak ez ditu betetzen eremuan azkenean ezarriko diren industria-jardueren programa funtzionalak. Horregatik, ezin da jo alternatiba bideragarritzat.

— Laugarrenak, 2019an hasieraz onetsitakoak, oinezkoentzako/ikusizko ardatz bat garatzen zuen, eremua zeharkatzen zuena konexio plataforma/egitura baten bidez, hasi eremuaren goiko aldetik, eta eremuaren erdialdean kokatutako plaza publikoraino. Oria ibaiaren ertzeko lurrak sartzen zituen, erriberako berdegune bat sortuz, oinezko lotura zuena Urbileko zabalgunearekin. Bigarren eta hirugarren alternatiben eragin positibo berberak zituen, baina antolamendua diseinatu zen erantzun bat emateko eremuan hasiera batean ezartzekoak ziren jarduera ekonomikoen behar funtzionalei. Horregatik, jarduera horien parte bat aldatu denez, eremua berrantolatu behar da, egungo premietara hobeto egokitzen den planteamendu batekin berrantolatu ere.

Lau alternatiba horiek baztertu ondoren, erabaki zen bosgarren bat prestatzea, eusten diena, neurri handi batean, proze-

en el tiempo transcurrido desde la aprobación de las mismas, se han reducido las necesidades de suelo por parte de dicha empresa en el ámbito, con lo que los suelos actualmente sin uso no serán objeto de ocupación futura por su parte. Este cambio en la estrategia empresarial de Michelin España Portugal S.A, además del interés mostrado por Balfer Norte S.L. y Gureak Lanean, S.A. por dichos suelos y la oportunidad que supone su ocupación para el municipio desde el punto de vista económico (crecimiento de la actividad económica en el municipio y generación de 700 puestos de trabajo directos), social (implantación de nuevas actividades de marcado carácter social y puesta en valor de un espacio degradado) y medioambiental (reutilización de suelos artificializados y recuperación como espacios verdes para uso ciudadano de los suelos libres próximos al río Oria), junto con la necesidad de dar salida al proyecto en un tiempo que no puede esperar al proceso natural de revisión del planeamiento general en vigor, justifican la conveniencia y oportunidad de esta modificación y, por tanto, avalan la desestimación de la Alternativa 0 de mantenimiento del planeamiento vigente.

Por otra parte, dada la naturaleza de la presente modificación de Normas Subsidiarias, se descarta la selección de alternativas de localización, centrándose el análisis exclusivamente en posibles alternativas de ordenación dentro del ámbito.

En cuanto a las 5 alternativas de ordenación planteadas, se pueden resumir como siguen:

— Una primera, en la que solo se daba respuesta a las necesidades expresadas por Balfer Norte S.L. y Gureak Lanean S.A. Se rechazó porque no cumplía ninguno de los objetivos ambientales establecidos en el convenio urbanístico para este ámbito y tampoco las determinaciones ambientales del avance del PGOU. Se trata de la opción peor valorada ambientalmente.

— Una segunda, que tenía como fin cumplir los criterios establecidos en el avance del PGOU. En la misma, se establecía la necesidad diseñar un espacio público de calidad por medio de la creación de un eje peatonal y visual que uniera y salvara la diferencia de cota entre el centro comercial Urbil y el río Oria y, además, posibilitara la creación de una plaza pública. Mejora algunos aspectos ambientales como el tratamiento del espacio público –afección positiva sobre el hábitat humano-, la superficie de espacios a renaturalizar –afección positiva sobre la vegetación y el hábitat para la fauna- y posibilidad de renaturalización del curso de agua artificial del ámbito –afección positiva sobre la red hidrológica-. Se rechazó porque la configuración de las edificaciones privadas dificultaba tanto el flujo de producción interna que hacía inviable esta alternativa.

— Una tercera en la que se modificaba la situación de la zona verde, de tal forma que siguiendo el cauce del río se creaba una amplia zona verde al oeste del ámbito. Cumple los objetivos de partida, mejorando los aspectos ambientales ya citados en la segunda alternativa e incluso aumenta la superficie de espacios a renaturalizar respecto a la misma. No obstante, tal y como pasa para la segunda alternativa, la ordenación no cumple con los programas funcionales de las actividades industriales que finalmente se implantarán en el área. Por ello, no se puede considerar como alternativa viable.

— Una cuarta, que fue la que se aprobó inicialmente en 2019, desarrollaba un eje peatonal/eje visual que atravesaba el ámbito mediante una plataforma/estructura de conexión desde la zona alta del ámbito hasta la plaza pública ubicada en el centro del mismo. Incorporaba los terrenos a orillas del Oria creando una zona verde de ribera conectada peatonalmente con la explanada de Urbil. Tenía los mismos impactos positivos que la dos y la tres, pero la ordenación se diseñó para responder a las necesidades funcionales de las actividades económicas que inicialmente se iban a implantar en el área. Por ello, el cambio de parte de dichas actividades hace necesario reordenar el ámbito con un planteamiento más adecuado a las necesidades actuales.

Tras desestimar estas 4 alternativas, se decidió elaborar una quinta que mantiene en gran medida los principales objeti-

EK\CV GAO-I-2022-01296

suan zehar planteatutako helburu publiko nagusiei, baina birplanteatzen duena eremuaren eraikigarritasuna –murriztu egiten baita–, bai eta urbanizatzeko karga ekonomikoak ere; hartara, eremuaren bideragarritasun ekonomikoa berma dadin. Alternatiba berri horrek berreskuratu egiten du, neurri batean, antolamenduko hirugarren aukera, baina hartan ez bezala, eraikinak errekatik urruntzen dira, eta Jabari Publiko Hidraulikoaren zortasun eremua errespetatzen dute, arroko erakundeen baldintzak betez (Ura/Konfederazioa). Horrela, errekan zehar, eremuko espazio publiko nagusia sortzen da, barne hartzen dituena oinezkoentzako konexioa eta ikusizko ardatza ere, hasi Urbil zabalgunetik eta Oria ibaiaren erriberako berdeguneraino. Alternatiba horrek 3. eta 4. alternatiben eragin positiboak ditu, baina, gainera, kontuan hartzen ditu eremuan ezarriko diren industria-jardueren behar funtzionalak; beraz, egokientzat jotzen da.

*3. Kontsulta egitea eragindako administrazioei, pertsona interesdunei, eta jendeari, oro har.*

21/2013 Legeko 30. artikuluan xedatutakoari jarraiki, eta oinarritzat hartuta plan bereziaren aldaketaren eta eragindako lurralde eremuaren ezaugarriak, Ingurumen Zuzendaritza Nagusi honek ondorengo administrazioak eta erakundeak identifikatu ditu interesdun gisa, eta kontsulta egin die. Hala, organo sustatzaileak taxututako dokumentazioa igorri zitzaien:

— Gipuzkoako Foru Aldundiko Kultura Zuzendaritza (GFA).

— GFAko Mendietako eta Natura Inguruneko Zuzendaritza.

— GFAko Kudeaketa eta Plangintzako Zuzendaritza.

— GFAko Nekazaritzako eta Lurralde Orekako Zuzendaritza.

— GFAko Lurralde Antolaketako Zuzendaritza.

— GFAko Obra Hidraulikoetako Zuzendaritza.

— GFAko Mugikortasuneko eta Garraio Publikoko Zuzendaritza.

— GFAko Errepideetako Zuzendaritza Nagusia.

— Eusko Jaurlaritzako Kultura Ondarearen Zuzendaritza.

— Eusko Jaurlaritzako Natura Ondare eta Klima Aldaketa Zuzendaritza.

— Eusko Jaurlaritzako Ingurumen Kalitatearen eta Ekonomia Zirkularraren Zuzendaritza.

— Eusko Jaurlaritzako Garraio Azpiegituren Zuzendaritza.

— Eusko Jaurlaritzako Lurralde Plangintzaren eta Hiri Agendaren Zuzendaritza.

— Eusko Jaurlaritzako Larrialdiei Aurre Egiteko eta Meteorologiako Zuzendaritza.

— Eusko Jaurlaritzako Energia, Meategien eta Industria Zuzendaritza.

— Eusko Jaurlaritzako Nekazaritza eta Abeltzaintza Zuzendaritza.

— Eusko Jaurlaritzako Osasun Saileko Gipuzkoako Lurralde Ordezkaritza.

— IHOBE.

— EEE.

— Uraren Euskal Agentzia (URA).

— Kantauriko Konfederazio Hidrografikoa.

— Añarbeko Uren Mankomunitatea.

— San Marko Mankomunitatea.

— Beterri-Buruntzako udalak.

— Behemendi.

— EHNE.

vos públicos planteados a lo largo del proceso, pero replantea la edificabilidad del ámbito –que se reduce-, así como las cargas económicas de urbanización de la misma, de forma que se asegure la viabilidad económica del ámbito. Esta nueva alternativa recupera en cierta medida la tercera opción de ordenación, pero a diferencia de ésta, los edificios de alejan de la regata y respetan la zona Servidumbre del Dominio Público Hidráulico en cumplimiento de los condicionantes de los organismos de cuenca (URA/Confederación). Así, se crea a lo largo de la regata el principal espacio público del ámbito que incorpora también la conexión peatonal y el eje visual desde la explanada de Urbil hasta la zona verde de la ribera del río Oria. Esta alternativa, tiene los impactos positivos de las alternativas 3 y 4, pero además tiene en cuenta las necesidades funcionales de las actividades industriales que se implantarán en el área, por lo que se considera que es la más adecuada.

*3. Consulta a administraciones afectadas, personas interesadas y público en general.*

De acuerdo con lo dispuesto en artículo 30 de la Ley 21/2013, y basándose en las características de la modificación del plan especial y del ámbito territorial afectado, esta Dirección General de Medio Ambiente ha identificado como interesadas y ha consultado a las siguientes administraciones y organizaciones, a las que remitió la documentación elaborada por el órgano promotor:

— Dirección de Cultura de la Diputación Foral de Gipuzkoa (DFG).

— Dirección de Montes y Medio Natural de la DFG.

— Dirección de Gestión y Planificación de la DFG.

— Dirección de Agricultura y Equilibrio Territorial de la DFG.

— Dirección de Ordenación del Territorio de la DFG.

— Dirección de Obras Hidráulicas de la DFG.

— Dirección de Movilidad y Transporte Público de la DFG.

— Dirección de Carreteras de la DFG.

— Dirección de Patrimonio Cultural del Gobierno Vasco.

— Dirección de Medio Natural y Cambio Climático del Gobierno Vasco.

— Dirección de Calidad Ambiental y Economía Circular del Gobierno Vasco.

— Dirección de Infraestructuras de Transporte del Gobierno Vasco.

— Dirección de Ordenación del Territorio y Urbanismo del Gobierno Vasco.

— Dirección de atención de emergencias y meteorología del Gobierno Vasco.

— Dirección de Energia, Minas y Administración Industrial.

— Dirección de Agricultura y Ganadería del Gobierno Vasco.

— Delegación Territorial de Gipuzkoa del Departamento de Salud del Gobierno Vasco.

— IHOBE.

— EVE.

— Agencia Vasca del Agua URA.

— Confederación Hidrográfica del Cantábrico.

— Mancomunidad de Aguas del embalse de Añarbe.

— Mancomunidad de San Marcos.

— Beterri-Buruntza Udalak.

— Behemendi.

— EHNE.

EK\CV GAO-I-2022-01296

— ENBA.

— Aranzadi Zientzia Elkartea.

— Eguzki talde ekologista.

— Ekologistak Martxan.

— Haritzalde Naturzaleen Elkartea.

— Itsas Enara Ornitologia Elkartea.

Halaber, dokumentazioa eskuragarri egon da Ingurumen Zuzendaritza Nagusiaren Interneteko www.gipuzkoaingurumena.eus atarian; hartara, jendeak, oro har, eta beste edozein interesdunek egokitzat jotako ingurumen arloko ekarpenak egin zitzaten.

Epea amaituta, eta txosten hau igorri zen egunera arte, erantzun hauek jaso dira:

— URA Uraren Euskal Agentziak jakinarazten duenez, bere txostena gorabehera, eskaera Kantauriko Konfederazio Hidrografikora bidali du, txostena egitea komeni dela uste badu ere.

— Eusko Jaurlaritzako Nekazaritza eta Abeltzaintza Zuzendaritzak adierazi duenez, dokumentazioa aztertu ondoren, ez du beharrezkotzat jotzen txostena egitea.

— Eusko Jaurlaritzako Kultura Ondarearen Zuzendaritzak jakinarazten duenez, dokumentazioa aztertu ondoren, proiektu horren esparruan ez da eraginik hauteman kultura-ondarean.

— GFAko Kultura Zuzendaritzak jakinarazten duenez, eskura dagoen informazioa kontsultatuta, esku-hartzea egin nahi den lekuan, ez dago ondare arkitektoniko edo arkeologiko gisa babestutako elementurik. Hala ere, adierazten dute ezen, Michelinen egungo eraikina Euskal Kultura Ondarearen Zentroak tokiko babesa eman dakien proposatutako higiezinen zerrendan dagoela, eta, aurkeztutako dokumentuan proposatzen da eraikin hura finkatzea. Amaitzeko, ez dio eragozpenik jartzen proiektuari.

— Natura Ondare eta Klima Aldaketa Zuzendaritzak dagoeneko jakinarazi zuen eremu horretako lehen aldaketa-proposamenean, 2019an. Positiboki baloratzen du, natura-ondarearen gaineko eraginen ondorioetarako, lur zerrenda zabalago bat lagatzen dela –Berdeguneen eta espazio publikoen tokiko sistema– Oria ibaira isurtzen den errekaren inguruan. Beste alde batetik, ingurumen dokumentuak proposatzen du urbanizazio proiektuak ingurumena lehengoratzeko programa bat izan dezala, barne hartuko dituena espezie autoktonoekin birlandaketak egitea, eta espezie exotiko inbaditzaileak kontrolatzeko programa bat. Zehaztapen hori aldaketaren Hirigintza-dokumentazioan sartu beharko da, Urbanizazio Proiektua garatzeko baldintza gisa. Era berean, programa horien definizioak, haiek proiektuarekin batera egikaritu ahal izateko adinako zehaztasun maila izan beharko du, zeinak barne hartuko baitu horretarako dagokion aurrekontua.

